



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 21a

117. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-22/MOC-00083. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira kirurgia plastiko, estetiko eta konpontzailearen arloko zenbait osasun jarduera arautu ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/POR-00336. Galdera, toki-entitateek berdintasuneko eragileak kontratatzeko eta sendotzeko laguntzei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (3. or.).
- 10-22/PES-00313. Galdera, Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoaren garbiketari eta zaharberritzeari buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (3. or.).
- 10-22/PES-00314. Galdera, legegintzaldi honetan Osasun Eskualde Oinarriko Osasun Kontseilu bakoitzak egindako bilerei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (4. or.).
- 10-22/PES-00315. Galdera, prostatako minbizia duten pazienteak Nafarroako Unibertsitatea Klinikara deribatzeari buruzkoa, Da Vinci kirurgia robotikoaren bidezko tratamendurako. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (5. or.).
- 10-22/PES-00316. Galdera, Lehen Mailako arretako familia-medikuen eta pediatrien lanpostuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (5. or.).
- 10-22/PES-0317. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren ondoriozko maskara stocka murrizteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (6. or.).
- 10-22/PES-00318. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren ondoriozko maskarak biltegitzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (6. or.).
- 10-22/PES-00319. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren bidez maskarak erostearen gainean Kontuen Ganberak egindako txostenari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or.).
- 10-22/PES-00320. Galdera, Next Generation funtsetatik Nafarroari esleitutako zenbatekoari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (8. or.).
- 10-22/PES-00305. Galdera, helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako antolakuntza-aldaketei buruzkoa. Galdera erretiratzea (8. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00083. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira kirurgia plastiko, estetiko eta konpontzailearen arloko zenbait osasun jarduera arautu ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko urriaren 14an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira kirurgia plastiko, estetiko eta konpontzailearen arloko zenbait osasun jarduera arautu ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen ditu nork bere eskumenen esparruan honako hauek egin ditzaten:

1. Irizpide komunak presta ditzaten araudia kontrolatzearen eta betetzearen inguruan, autonomia-erkidegoekin batera eta Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluan, U.47 Kirurgia Estetikoa laguntza-unitatearen baimena duten osasun zentroentzat.

2. Pazienteei informazioa helaraz diezaieten, Kirurgia Plastiko, Konpontzaile eta Estetikoko espezialistei eta medikuntzako beste espezialistei haien espezialitatearen prestakuntza-programa

ofizialeko gaitasunen arabera dagozkien gaitasun eta teknikei buruzkoa.

3. Aldatzea urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretua, Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduak baimentzeari buruzko oinarri orokorrak ezartzen dituena, intrusismoa ekidite aldera eta bermatze aldera osasungintzako jarduera guztiak titulazio ofizialki aitortua duten profesionalak eginak direla.

4. Gure ordenamendu juridikoan jasota dagoen mediku espezialistaren tituluaren edukitza nahitaezkoztat ezar dadin medikuntzako espezialitate guztietako lanbide-jardunerako eta horietako bakoitzari dagozkion eginkizunak betetzeko.

5. Borroka egitea medikuntzako lanbideetako espezialitate desberdinetan eragiten duen edonolako intrusismo edo sasizientziaren aurka, eta Sasiterapien Plan Nazionala garatzea.

6. Zaintzea Gaixoaren autonomia eta informazio nahiz agiri klinikoen alorreko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legea osorik betetzen dela”.

Iruñean, 2022ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-22/POR-00336. Galdera, toki-entitateek berdintasuneko eragileak kontratatzeke eta sendotzeko laguntzei buruzkoa.*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, toki-entitateek berdintasuneko eragileak kontratatzeke eta sendotzeko laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak ahoz erantzun dezan:

INAIren informazio-ohar baten bidez jakin dugu toki-entitateek berdintasuneko agenteak kontratatzeke –gehienez ere hiru urtez– eta sendotzeko dirulaguntzak murriztu egingen direla.

• Zer irtenbide eskaintzen ditu INAIk irizpidealdaketa horren ez dezan murrizketarik eragin toki-entitateetan berdintasuneko agenteen kontratazioen finantzaketan eta sustapenean?

Iruñean, 2022ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

10-22/PES-00313. Galdera, Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoaren garbiketari eta zaharberritzeari buruzkoa.*FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoaren garbiketari eta zaharberritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2022ko abuztuaren 5ean idatzizko galdera bat egin nuen (10-22/PES-00220) Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoaren kontserbazioaren inguruan, eta 2022ko irailaren 28an erantzun zidaten jada garbitu zutela.

Nafarroako Gobernuak uste du egindako jarduketaren egokia izan dela? Ezin da hobeto garbitu eta

zaharberritu? Nafarroako Gobernuak konforme dago lortutako emaitzarekin?

Zein izan da jarduketaren kostua eta zein enpresak egin du?

Kontuan hartuta Nafarroako Gobernuak baduela Zaharberritze Zerbitzu bat –fidagarritasun handikoa– Vianako Printzea Erakundearen Ondare Historikoaren Zerbitzuaren barruan, Nafarroako Gobernuak baloratu al du monolitoaren garbiketa eta zaharberritzea aipatutako zerbitzu horrek egiteko aukera?

Iruñean, 2022ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

10-22/PES-00314. Galdera, legegintzaldi honetan Osasun Eskualde Oinarritzko Osasun Kontseilu bakoitzak egindako bilerei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, legegintzaldi honetan Osasun Eskualde Oinarritzko Osasun Kontseilu bakoitzak egindako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Oinarritzko Osasun Eskualdeetako Osasun Kontseilu bakoitzak legegintzaldi honetan egindako bilera-kopurua.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00315. Galdera, prostatako minbizia duten pazienteak Nafarroako Unibertsitatea Klinikara deribatzeari buruzkoa, Da Vinci kirurgia robotikoaren bidezko tratamendurako.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, prostatako minbizia duten pazienteak Nafarroako Unibertsitatea Klinikara deribatzeari buruzkoa, Da Vinci kirurgia robotikoaren bidezko tratamendurako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak erabiltzen dituen irizpi-deak prostatako minbizia duten gaixoak Nafarroako Unibertsitatea Klinikara bideratzeko, Da Vinci kirurgia robotikoaren bidez tratamendua jaso dezaten.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00316. Galdera, Lehen Mailako arretako familia-medikuen eta pediatren lanpostuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Lehen Mailako arretako familia-medikuen eta pediatren lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Lehen Mailako arretako familia-medikuen eta pediatren lanpostu-kopurua Oinarrizko Osasun Eskualde bakoitzeko, zehaztuta horietako zenbat dauden gaur egun egonkortasunez bete gabe eta zenbat betetzen diren aparteko lanaldiekin edo ordezkapen ez egonkorrekin.

2. Pediatriako mediku espezialista batekin egonkortasunez beteta dauden pediatriako lanpostu-kopurua.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-0317. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren ondoriozko maskara stocka murrizteari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren ondoriozko maskara stocka murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren ondoriozko maskara stocka murrizte-

ari buruz alderdien artean eta/edo Sodenaren Administrazio Kontseiluan planteatutako alternatibak ikusita:

1- Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eta/edo Sodenak CENekin izandako kontaktuak, planteamenduak eta egindako ekintzak, eta jaso den erantzuna.

2- Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eta/edo Sodenak Osasun Departamentuarekin eta Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin izandako kontaktuak, planteamenduak eta egindako ekintzak, eta jaso den erantzuna.

3- Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eta/edo Sodenak Osakidetzarekin edo Eusko Jaurlaritzako beste ordezkari batzuekin izandako kontaktuak, planteamenduak eta egindako ekintzak, eta jaso den erantzuna.

4- Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eta/edo Sodenak enpresa handiekin eta multinazionalekin izandako kontaktuak, planteamenduak eta egindako ekintzak, eta jaso den erantzuna.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00318. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren ondoriozko maskarak biltegitzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren ondoriozko maskarak biltegitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren ondoriozko maskarak biltegitzearen guztizko kostua eta, hala badagokio, nori ordaindu zaion.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00319. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren bidez maskarak erostearen gainean Kontuen Ganberak egindako txostenari buruzkoa.**CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren bidez maskarak erostearen gainean Kontuen Ganberak egindako txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Kontuen Ganberak txosten bat egi- tea aurreikusi du Sodenak, CENek eta Albyn Medicelek maskarak erosteko egindako hitzarmenaren inguruan; horri dagokionez:

1- Nafarroako Gobernutik eta/edo Sodenatik Kontuen Ganberarekin harremanetan jarri diren pertsona/k. Noiz jarri ziren harremanetan, tartean sartutako pertsonak eta erabilitako bidea (aurrez aurreko hitzordua, telefonoa, posta elektronikoa...).

2.- Kontuen Ganberari txostena egiteko eskatu dion pertsona, noiz egin zuen eskaera, zer bide erabili zuen eta proposamenaren justifikazioa.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00320. Galdera, Next Generation funtsetatik Nafarroari esleitu-tako zenbatekoari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Next Generation funtsetatik Nafarroari esleitutako zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Urriaren 7ko agerraldian, adierazi zenuen Nafarroako Foru Komunitateari 480 milioi euro esleitu zaizkiola orain arte Next Generation Europako funtsetatik.

1.-Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurreikuspenen arabera, zein izanen da Nafarroari guztira esleitu zaien diru-kopurua, gehigarria aintzat hartu gabe?

2.- Eta gehigarria aintzat hartuta?

Iruñean, 2022ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

10-22/PES-00305. Galdera, helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako antolakuntza-aldaketei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako antolakuntza-aldaketei buruzko galdera erretiratu izanaz. Galdera Cristina Ibarrola Guillén

andreak aurkeztu zuen eta 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias